

Lehen kanpaina da Euskal Sagardoa Jatorri Izenarekin

EROSKI-K %7 GEHIAGO SALDU DU SAGARDOA , 650.000 LITRO GUZTIRA

- EROSKI k hogeit bat euskal ekoizleren 40 sagardo mota baino gehiago merkaturatzen ditu bere sare komertzial osoan, euskal ekoizpen ehunaren aniztasuna indartzearen aldeko apustuan
- EROSKIren kanpaina berriari ekiteko, lehen txotx ateratzea egin du gaur Euskal Sagardoa Jatorri Izenarekin batera. Kepa Junkera musikaria eta Patxi Zubizarreta idazlea izan dira bertan, eta bihar ekitaldi bera egingo dute Berangoko hipermerkatuan.

Usurbil (Gipuzkoa), 2018ko urtarrilaren 26a. -[EROSKI](#) k %7 gehiago saldu zuen sagardotik Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Sagardoa Jatorri Izen berria bere apaletara ekarri duen honetan. Kooperatibak 650.000 litro saldu zituen 2017an, eta, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko hogeit bat hornitzailearen 40 sagardo mota baino gehiago saltzen ditu bere denda sarean; hala, tokiko ekoizleei ematen dien babesa handitu egin du, eta, beraz, baita euskal ekoizpen ehunaren aniztasunari ematen diona ere.

EROSKI k gaur goizean inauguratu du sagardo garaia, EROSKI Urbil hipermerkatuan, Usurbilen, Astigarragarekin eta Hernanirekin batera Gipuzkoako sagardoaren hiriburua den herri horretan. Txotxa ateratzearena bi lagunengain joan da, Kepa Junkera egile eta musikaria eta Patxi Zubizarreta gipuzkoar idazlea. Haiekin batean, hor izan dira ekitaldian Unai Agirre Euskal Sagardoa Jatorri Izenaren koordinatzailea, Asier Arrese HAZI Fundazioko zuzendaria eta EAEn sagardoaren munduan sakon erroturik diren zenbait etxetako ordezkariak, hala nola Bereziartua, Gurutzeta, Isastegi, Saizar, Zapiain, Egi-Luze, Begiristain, Petritegi eta Zelaia.

EROSKIren lehen txotx ateratzea izan da Euskal Sagardoa Jatorri Izenarekin. Bigarren urtea du, eta kooperatibak pixkanaka sartu du bere sare komertzialaren parte handi batean. "*Pauso bat eman dugu euskal ekoizpen ehunaren aldeko apustuan; izan ere, gure ustez, ezinbestekoa da haren alde egitea, iraungo badu eta gure inguruko enplegua, ekonomia, kultura eta paisaia indartuko badira*", esan du EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

"Euskal Sagardoa egiteko sagarrak 250 hektareetatik baino gehiagotatik hartu dituzte 200 sagar ekoizleek, Euskal Sagardoa Jatorri Izena erabiltzen duten 48 upategitarako. Jatorri Izenaren lehengaia ekoizten dute horiek, eta, beraz, ezinbestekoak dira gure proiektuak aurrera egin dezan", esan du Euskal Sagardoa Jatorri Izenaren koordinatzaileak, Unai Agirrek. "*Sagarraren ekoizpena profesionalizatzen ari dira pixkanaka, sagarrak ahalik eta kalitate onenekoak eta uztak orekatuak izan daitezen eta, era berean, Euskal Sagardoaren kalitatea berma dadin. Gainera, EROSKI bera,*



banatzailea den aldetik, funtsezkoa da sagardoaren sektorearen etorkizuna bermatzeko”, esan du.

Bihar, Bizkaian aurkeztuko dute sagardoaren kanpaina, Berangoko hipermerkatuan, eta berriz ere Kepa Junkera izango da Euskal Sagardoa Jatorri Izenarekin lehenengoz egiten den txotxaren anfitrioi.

Informazioa:

<p>EUSKAL SAGARDOA J.I. Euskal Sagardoa Jatorri Izenaren koordinatzailea Unai Agirre Tel: 688 64 59 46 do.euskalsagardoa@gmail.com</p>	<p>EROSKI Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Xurdana Fernandez, Tel.: 946 211 214 comunicacion@eroski.es Prensa bulegoa - Consejeros del Norte Joana G. Landazabal / Edurne Izquierdo Tel: 944 158 642</p>
--	---